

le berririk oraindik aldarrikatu ez bada, metodologia hau berau aplikatuko da oso-osorik 2012ko eta hurrengo ekitaldietan.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko martxoaren 29a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2124

56/2007 DEKRETUA, martxoaren 27koa, Merkataritza Banaketaren Behatokia sortu eta arautzen duena.

EAEko Merkataritzaren Lehiakortasun Planak (2005-2009) —Merkataritzaren Ezagutza Kudeatu eta Zabaltzeko strategiaren barruan— Merkataritza Banaketaren Behatokia sortu eta garatzea aurreikusten du, zeinaren bidez jarraipena egokia egingo baitzaio EAEko merkataritza sistemaren bilakaerari. Horretaz gain, sektorea aztertu, egon dagoen informazioa ebaluatu eta bilakaera baloratuko ditu.

EAEko Administrazioako eta eragindako erakundee-tako eta sektoreetako adituz osatutako Organo Aholku-Emaila horrek EAEko dinamika komertziala ebaluatu eta aztertuko du. Sektorekako elementu integratzaile eta ezagutza mailan balio erantsia duten sinergia sortzaileen eta informazio baliabideen tresna eragilea bihurtuko da.

Merkataritza Banaketaren Behatokiaren jardueraren helburuak: ehun enpresarialaren lehiakortasuna hobetzea, erakunde politiken eraginkortasuna hobetzea eta bezeroak asebetetzea.

Hobekuntza horiek lortze aldera, Merkataritza Banaketaren arloan azaltzen ari diren prozesu guztiak aztertuko ditu Behatokiak: banaketarako eta fabrikaziorako sektoreak integratu eta kontzentratzea, erosketa zentroak, espezializazioa, teknologia berriak eskuratzea, Europako Batasunean sartzeak sektoreari ekarritako arazoak, eta beste batzuk. Behar diren txosten eta irizpe-nak ere gertatuko ditu Behatokiak.

cursos y determinación de aportaciones para los ejercicios siguientes, la presente metodología será de aplicación en todos sus términos para el ejercicio 2012 y siguientes.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 29 de marzo de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

2124

DECRETO 56/2007, de 27 de marzo, de creación y regulación del Observatorio de la Distribución Comercial.

El Plan de Competitividad del Comercio Vasco 2005-2009, prevé dentro de la estrategia de Gestión y Difusión del Conocimiento del Comercio, la creación y desarrollo de un Observatorio de Distribución Comercial, para realizar un adecuado seguimiento de la evolución del sistema comercial en la Comunidad Autónoma del País Vasco y que, a su vez, elabore estudios, evalúe la información existente y valore la evolución del sector.

Este Órgano Consultivo, formado por expertos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, Instituciones y sectores implicados, deberá evaluar y analizar la dinámica comercial de la Comunidad Autónoma, constituyéndose como elemento integrador de recursos de información y conocimiento sectorial, así como instrumento potenciador de sinergias generadoras de valor añadido en términos de conocimiento.

La actividad del Observatorio de la Distribución Comercial de Euskadi se orienta al servicio de la mejora de la competitividad del tejido empresarial, la mejora de la eficacia de las Políticas Institucionales y la satisfacción de los consumidores.

Para conseguir estas mejoras, el Observatorio deberá analizar todos los procesos que se vienen desencadenando en el mundo de la Distribución Comercial: integración y concentración de los sectores de distribución y fabricación, centros de compra, especialización, asunción de nuevas tecnologías, problemática del sector con relación a la incorporación a la Unión Europea, etc., y emitir los correspondientes informes y dictámenes.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuko 19.1.i) artikulua EAEko Merkataritza Banaketaren Behatokia sortu eta babesteko agintzen dio Merkataritza Zuzendaritzari.

Ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta, Jaurlearitza Kontseiluak 2007ko martxoaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Sortu eta atxiki.

EAEko Merkataritza Banaketaren Behatokia sortzen da Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikita. Merkataritza arloan kontsulta egiteko, aholkuak emateko eta lankidetzak eskaintzeko organoa da, dekretu honetan ezarritakoak arautuko dituena.

2. artikulua.— Egitekoak.

Merkataritza Banaketaren Behatokiaren egitekoak:

a) Beste instantzia publiko edo pribatu batzuetan sortutako informazioa batuz, merkataritza arloko eza-gutzak kudeatzea, instantzian lotura- eta jarraipen-baliabideak era egokian antolatuta.

b) Jasotako informazioa analizatuz merkataritza arloko ezagutzak ekoitzi eta kudeatzea; norbere txostenak eta azterlanak gertatzea; eta EAEko sektore- eta espazio-behaketarako tresnak diseinatzea.

c) Merkataritza arloko ezagutza zabaldu eta dibulgatzea hitzaldi, mahainguru eta programatutako beste jardura batzuen bidez; eta papereko eta elektronikako bidezko argitalpenak gertatu eta zabaltzea.

3. artikulua.— Merkataritza Banaketaren Behatokia eratzea.

Merkataritza Banaketaren Behatokiaren jardun-organok: Behatokiaren Osokoa edo Kontsulta Foroa; Bartzorde Exekutiboa eta Idazkaritza Teknikoa.

4. artikulua.— Behatokiaren Osokoa edo Kontsulta Foroa.

1.— Dekretu honetako 2. artikuluan ezarritako eginkizunak burutzea dagokio Behatokiaren Osokoari.

2.— Behatokiaren Osokoa edo Kontsulta Foroan Behatokia osatzen duten sektorekako eta erakundekako agente arlo guztietakoek parte hartuko dute.

3.— Behatokiaren Osokoak lehendakaria eta hogeita hamar kide izango ditu, honako modu honetan banatuta:

El artículo 19.1.i) del Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo asigna a la Dirección de Comercio, entre otras funciones, la de crear y tutelar el Observatorio de la Distribución Comercial en Euskadi.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 27 de marzo de 2007,

DISPONGO:

Artículo 1.— Creación y adscripción.

Se crea el Observatorio de la Distribución Comercial de Euskadi, como un órgano consultivo, asesor y de colaboración en materia de comercio, adscrito al Departamento de Industria, Comercio y Turismo que se regulará por lo establecido en la presente norma.

Artículo 2.— Funciones.

Las funciones del Observatorio de la Distribución Comercial son:

a) Gestionar el depósito de conocimientos en materia de comercio, recopilando la información generada por otras instancias, públicas o privadas, mediante la adecuada organización de los dispositivos de conexión y seguimiento de las mismas.

b) Producir y gestionar los conocimientos propios en materia de comercio a través del análisis de la información recibida, la elaboración de informes y estudios propios y el diseño de instrumentos de observación sectorial y espacial de la Comunidad Autónoma Vasca.

c) Difundir y divulgar, el conocimiento en materia de comercio a través de actividades programadas como charlas, mesas redondas etc. y de la elaboración y difusión de publicaciones tanto en soporte papel como electrónicas.

Artículo 3.— Organización del Observatorio de la Distribución Comercial.

El Observatorio de la Distribución Comercial actuará mediante el Pleno del Observatorio o Foro Consultivo, la Comisión Ejecutiva y la Secretaría Técnica.

Artículo 4.— Pleno del Observatorio o Foro Consultivo.

1.— Al Pleno del observatorio le corresponde el ejercicio de las funciones establecidas en el artículo 2 del presente Decreto.

2.— En el Pleno del Observatorio o Foro Consultivo tendrán participación los agentes sectoriales e institucionales de todos los ámbitos que conforman el Observatorio.

3.— El Pleno del Observatorio se compondrá de un Presidente y treinta vocales, que se distribuyen de la manera siguiente:

– Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordea izango da lehendakaria.

– Merkataritza zuzendaria.

– Euren arloetan eta EAEko merkataritzan adituak diren hogeita bederatzi kide, EAEko Administrazio Orokorreko, erakundeetako eta eragindako sektoreetako kide izango direnak.

4.– Hogeita bederatzi kideen jatorria:

a) EAEko Administrazio Orokorreko bost kide, Lurralde Antolamenduaren, Garraioaren, Hirigintzaren, Osasun Publikoaren, Nekazaritzaren eta Elikaduraren arloetan eskumenak dituztenak, sail bakoitzeko sailburuak proposatuta.

b) Foru aldundietako kide bat, eurek proposatuta.

c) Euskal Udalen Elkarteko (Eudel) 2 ordezkari.

d) Merkataritzako Enpresarien Elkartetako bederatzi ordezkari, elkarte bakoitzak proposatuta:

– Merkataritza Banaketaren Enpresa Handietako bi ordezkari.

– EAEko Supermerkatuen Elkarteko (Asupe) ordezkari bat.

– EAEko Merkataritzako Lurralde Federazioetako hiru ordezkari.

– EAEko Hiri Merkataritzaren Plataformetako hiru ordezkari.

e) EAEko Kontsumitzaile Elkartetako ordezkari bat, eurek proposatuta.

f) EAEn ordezkariarik gehien dituzten sindikatueta-ko ordezkari bana, eurek proposatuta. Urtero txandakatuko dira.

g) Euskal Estatistika Erakundeko (Eustat) ordezkari bat.

h) Industriaren Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietateko (SPRI SA) ordezkari bat.

i) EAEko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbaretako hiru ordezkari, eurek proposatuta.

j) Lehiakortasunaren Defentsarako Euskal Epaitegi-ko ordezkari bat, berak proposatuta.

k) Unibertsitatearen ordezkari bat, Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordeak proposatuta.

l) Elikaduraren, pertsonal ekipamenduaren eta etxe ekipamenduaren arloetako ekoizpen sektoreetako hiru kide, eurek proposatuta.

5.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak izendatuko ditu kideak, aurreko paragrafoetan jasotako entitateek proposatu ostean.

– El Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, que actuará como Presidente.

– El Director de Comercio.

– Veintinueve vocales que deberán ser expertos en sus respectivas áreas y en relación con el comercio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, elegidos entre la Administración General de la Comunidad Autónoma, Instituciones, y miembros de los sectores implicados.

4.– Los veintinueve vocales mencionados procederán de:

a) Cinco de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco con competencias en materia de Ordenación del Territorio, Transportes, Urbanismo, Salud Pública, Agricultura, Pesca y Alimentación, a propuesta de los Consejeros correspondientes.

b) Uno por las Diputaciones Forales a propuesta de las mismas.

c) Dos por la Asociación de Municipios Vascos (Eudel).

d) Nueve por las Asociaciones Empresariales de Comercio a propuesta de cada una de ellas:

– Dos integrantes de las Grandes Empresas de Distribución Comercial.

– Uno integrante de la Asociación de Supermercados de Euskadi (Asupe).

– Tres integrantes de las Federaciones Territoriales de Comercio de Euskadi.

– Tres integrantes de las Plataformas de Comercio Urbano de Euskadi.

e) Uno por las Asociaciones de Consumidores del País Vasco a propuesta de las mismas.

f) Uno por los Sindicatos más representativos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que se turnarán por períodos anuales, a propuesta de los mismos.

g) Uno por el Instituto Vasco de Estadística (Eustat).

h) Uno por la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial (SPRI).

i) Tres miembros por las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación del País Vasco a propuesta de las mismas.

j) Un miembro por el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia a propuesta del mismo.

k) Uno por la Universidad a propuesta de la Viceconsejería de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

l) Tres miembros por los sectores de producción pertenecientes a los sectores de alimentación, equipamiento personal y equipamiento de hogar a propuesta de los mismos.

5.– El nombramiento de vocales se realizará por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, a propuesta de las entidades recogidas en los puntos anteriores.

6.– Merkataritza Zuzendaritzako teknikari bat izango da Osoko idazkaria, hitz egiteko eskubidez baina bo-to barik. Lehendakariak izendatuko du.

5. artikulua.– Osokoaren funtzionamendu erregi-mena.

1.– EAeko Merkataritza Banaketaren Behatokiaren Osokoa birritan batzartuko da urtero, ohiko eran; eta lehendakariak deitzen duen oro, ezohiko eran.

2.– Lehendakariaren eskumena da Behatokiaren Osoko bileretarako deia egitea eta gai-zerrenda jartzea.

3.– Lehendakariak kalitate botoa izango du bere bo-toarekin berdinketak ebatzi eta erabakiak hartzeko.

6. artikulua.– Lan Batzordeak.

1.– Behatokiaren Osokoak, kideen gehiengoak onar-tu eta gero, merkataritza arloan interesekoak diren gaiak aztertzeke batzordeak edo taldeak osatu ahalko ditu. Lanerako batzordea edo taldea osatzeko erabakian bertan zehaztu beharko dira bere osaera, eginkizunak eta, hala behar izanez gero, lortzeko epea.

2.– Eragindako sektoreen eta/edo adituen ordezkari egoki irizten direnak lan-taldeetan azaltzea erabaki daiteke.

7. artikulua.– Batzorde exekutiboa.

1.– Osokoaren lanak prestatzeaz, horrek eskuordetu edo izendatzen dizkion zereginak edo eginkizunak betetzeaz eta lan-batzordeak edo –taldeak koordinatzeaz arduratuko da batzorde exekutiboa.

2.– Batzorde exekutiboa zazpi kidek osatzen dute: lehendakariak eta Merkataritzaren arloan eskumena duen Administrazioari sei ordezkari, horietariko bi EAeko Administrazio Orokorren izenean, bat EAeko Merkataritza Ganbaren izenean, bat Merkataritzako Enpresario Elkarleen izenean (organo eskumendunak aukeratuta), bat Estatistikaren Euskal Erakundearen (Eustat) izenean, eta beste bat EAeko Udalerrien Elkarlearen (Eudel) izenean.

3.– Lehendakariak kalitate botoa izango du bere bo-toarekin berdinketak ebatzi eta erabakiak hartzeko.

8. artikulua.– Idazkaritza Teknikoa.

Idazkaritza Teknikoak, Merkataritza Banaketaren Behatokiaren eginkizunak betetzen laguntzeko, zenbait zeregin hartuko ditu Osokoari eta Batzorde Exekutiboa bultzatze aldera: informazio iturri kanpokoak biltzea; barne produktuak gertatzea; koordinatzea; agiriak gainbegiratzea; eta administrazio- eta kudeaketa-sorospena gertatzea.

9. artikulua.– Zerbitzuaren ondoriozko dietak eta kalte-ordainak.

6.– Actuará como Secretario del Pleno con voz pero sin voto un Técnico de la Dirección de Comercio que será designado por el Presidente.

Artículo 5.– Régimen de funcionamiento del Pleno.

1.– El Pleno del Observatorio de Distribución Comercial de Euskadi se reunirá con carácter ordinario dos veces a lo largo del año y con carácter extraordinario, cuando lo convoque el Presidente.

2.– Compete al Presidente convocar las reuniones del Pleno del Observatorio y fijar el orden del día.

3.– El Presidente tendrá voto de calidad para dirimir con su voto los empates, a efectos de adoptar acuerdos.

Artículo 6.– Comisiones de Trabajo.

1.– El Pleno del Observatorio podrá constituir, previa aprobación de la mayoría de sus miembros, comisiones o grupos de trabajo para el estudio de temas concretos de interés en materia de comercio. El acuerdo de creación de cada comisión o grupo de trabajo deberá especificar su composición, las funciones que se le encomienden y, en su caso, el plazo para su consecución.

2.– Podrá acordarse la comparecencia, en los grupos de trabajo, de representantes de los sectores afectados, y/o de los expertos que se estimen necesarios.

Artículo 7.– Comisión ejecutiva.

1.– La Comisión ejecutiva se encargará de preparar los trabajos del Pleno, de ejecutar las tareas o cometidos que le sean delegados o asignados por éste, y de coordinar las comisiones o grupos de trabajo.

2.– La Comisión ejecutiva estará formada por un total de siete miembros e integrada por el Presidente del Pleno y por seis representantes de la Administración competente en materia de Comercio y de instituciones y sectores implicados: dos en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, uno por las Cámaras de Comercio del País Vasco, uno por las Asociaciones Empresariales de Comercio designado por sus órganos competentes, uno por el Instituto Vasco de Estadística (Eustat), y uno por la Asociación de Municipios Vascos (Eudel).

3.– El Presidente tendrá voto de calidad para dirimir con su voto los empates, a efectos de adoptar acuerdos.

Artículo 8.– Secretaría Técnica.

Con el objeto de facilitar el cumplimiento de las labores del Observatorio de la Distribución Comercial, la Secretaría Técnica, será la encargada de la recopilación de fuentes externas de información, elaboración de productos internos, coordinación, supervisión de documentos, prestar asistencia administrativa y de gestión al Pleno y a la Comisión Ejecutiva.

Artículo 9.– Dietas e indemnizaciones por razón de servicio.

1.– Behatokiko kideek ez dute kobratuko. Batzarretara joaten direnek, hala ere, dietak eta kalte-ordainak kobratu ahal izango dituzte zerbitzua eskaintzeagatik.

2.– Batzarretan parte hartzearen ondorioz Behatoki-kideek kobratuko dutena, zerbitzua eskaintzeagatik eskuratutako kalte-ordainei buruz honako xedapen hauetan ezarritakoari egokituko zaie: Goren kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legean, Zerbitzua eskaintzeagatik eskuratutako kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta gainerrako arau aplikagarrietan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bilera baliotasunez osatzeko behar diren kideak izendatu ostean egingo da EAEko Merkataritza Banaketaren Behatokiaren Osokoaren lehenengo bilera. Deialdia Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordeak egingo du, bera baita Behatokiko lehendakaria.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Behatokiaren funtzionamendua.

EAEko Merkataritza Banaketaren Behatokiaren funtzionamenduari Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko giza- eta tresna-baliabideez egingo zaio aurre.

Bigarrena.– Ordezko erregimena.

Behatokiaren Osokoak bere arau propioak ezarri ahal izango ditu eta dekretu honetan ezarritakoak ere bete beharko dira. Beren beregi xedatu ez denerako organo kolegiatuei buruz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluko II. kapituluan ezarritako erregimena aplikatu ahal izango da.

Hirugarrena.– Arauen garapena.

Dekretu hau garatzeko eta betetzeko behar diren xedapenak emateko baimena ematen zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari.

Laugarrena.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko martxoaren 27an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,

ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

1.– La condición de miembro del Observatorio no tiene carácter retribuido. Ello no obstante, la asistencia a reuniones podrá, en su caso, dar lugar a la percepción de las correspondientes dietas e indemnizaciones por razón de servicio.

2.– Estos gastos por asistencia a reuniones de los miembros del Observatorio se ajustarán a las previsiones que sobre materia de indemnizaciones por razón de servicio establecen la Ley 14/1988, de 28 de octubre, de Retribuciones de Altos Cargos, el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio y demás normativa aplicable.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La primera sesión del Pleno del Observatorio de la Distribución Comercial de Euskadi se llevará a cabo una vez estén nombrados la mayoría suficiente de miembros necesarios para su válida constitución y se convocará por el Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial en su condición de Presidente del mismo.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Funcionamiento del Observatorio.

El funcionamiento del Observatorio de la Distribución Comercial de Euskadi será atendido con los medios materiales y los recursos humanos disponibles en el Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Segunda.– Régimen supletorio.

El Pleno del Observatorio podrá establecer sus propias normas de funcionamiento, sin perjuicio de lo establecido en el presente Decreto y en todo lo no dispuesto expresamente será de aplicación supletoria el régimen que sobre los Órganos Colegiados está contenido en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Tercera.– Desarrollo normativo.

Se autoriza a la Consejera de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

Cuarta.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de marzo de 2007.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,

ANA AGUIRRE ZURUTUZA.